

Argitalpenak

Publicaciones

Abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak –1999ko urriaren 26an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta– arautu zuen Eusko Jurlaritzaren erakunde-nortasuna. Dekretuak aipatzen duen eskuliburuak hiru kapitulu jasotzen ditu:

1. kapitulua. Arau orokorrak
2. kapitulua. Beste marka batzuekin batera
3. kapitulua. Berariazko beste marka batzuk

Kapitulu hau, berriz, dekretu horren ondorengo garapena da; hain zuzen ere, Lehendakariak idazkariaren ebazpen bidez onartua, hala ezartzen baitu delako dekretuko azken xedapenetako lehenengoak.

La Identidad Corporativa del Gobierno Vasco está regulada por el Decreto 318/1999, de 31 de Agosto, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 26 de Octubre de 1999, y que comprende:

- Capítulo 1. Normas Universales
- Capítulo 2. Convivencia con Otras Marcas
- Capítulo 3. Otras Marcas Específicas

El Presente capítulo es un desarrollo normativo posterior adoptado por Resolución del Secretario de la Presidencia, en virtud de la Disposición Final Primera del citado Decreto.

Aurkibidea**Índice****6. ARGITALPENAK****6. PUBLICACIONES**

6.1 Argitaraldiak	6-2 / 99	6.1 Ediciones
6.2 Liburuak	6-4 / 99	6.2 Libros
6.2.1 Arau orokorrak	6-4 / 99	6.2.1 Normas generales
6.2.2 Estalkia	6-8 / 99	6.2.2 Cubierta
6.2.3 Atzeko estalkia	6-10 / 99	6.2.3 Cubierta posterior
6.2.4 Gaineko estalkia	6-10 / 99	6.2.4 Sobrecubierta
6.2.5 Bizkarrak	6-12 / 99	6.2.5 Lomos
6.2.6 Azala	6-14 / 99	6.2.6 Portada
6.2.7 Lizentzien orrialdea	6-16 / 99	6.2.7 Página de licencias
6.2.8 Aurkibideak	6-16 / 99	6.2.8 Índices
6.2.9 Barruko orrialdeak	6-18 / 99	6.2.9 Páginas interiores
6.2.10 Bildumak	6-18 / 99	6.2.10 Colecciones
6.3 Informatikako eta ikus-entzunezko euskarriak	6-20 / 99	6.3 Soportes informáticos y audiovisuales
6.3.1 Arau orokorrak	6-20 / 99	6.3.1 Normas generales
6.3.2 Zenbait alderdi –espezifikoak, bereziak –	6-20 / 99	6.3.2 Aspectos particulares –específicos, peculiares, singulares–.
6.3.3 Baliabide telematikoak –zabalkundeko baliabide elektronikoak–	6-20 / 99	6.3.3 Medios telemáticos –electrónicos de difusión, divulgación–.
6.4 Aldizkariak	6-24 / 99	6.4 Revistas
6.4.1. Irizpide orokorrak	6-24 / 99	6.4.1 Criterios generales
6.4.2 Estalkia	6-24 / 99	6.4.2 Cubierta
6.4.3 Atzeko estalkia	6-25 / 99	6.4.3 Cubierta posterior
6.4.4 Barrualdea	6-25 / 99	6.4.4 Interior
6.4.5 Zer-non	6-25 / 99	6.4.5 Sumario
6.4.6 Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria	6-26 / 99	6.4.6 Boletín Oficial del País Vasco

6.1. Argitaraldiak

Eusko Jaurlaritzak sailen bidez zabaltzen dituen argitalpenak hiru multzotan bil daitezke:

- **Liburuak**
- **Informatikako eta ikus-entzunezko euskarriak**
- **Aldizkariak**

Esan beharra dago, bada, Eusko Jaurlaritzak berak zabalduko argitalpenei bakarrik dagokiela kapitulu honek dakarrena. Eskuliburu honetako 2. kapituluak, "Beste marka batzuekin batera" izenekoan, zehaztu dira zein arau bete behar diren Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakundeek argitalpenak egiteko, eta zein Eusko Jaurlaritzak beste erakunde batzuei emandako laguntzaren bidez datozenetan.

Argitalpen guztietan erabili beharreko markak "etzana", "erdikoa" edo "albokoa" izango dira, bai koloreetan, bai kolore bakarrean eta bai koloreetako hondoen gainean.

Liburuaren bizkarretan tokirik ez dagoenez, armarrria baino ez da erabiliko bertan, logotiporik gabe.

Hizkuntzari dagokionez, argitalpenek honelako trataera izan beharko dute:

- **Elebiduna**
Hizkuntza bietan kaleratzen diren argitalpenei elebidunak esaten zaie.
- **Elebakarra**
Horrelakoetan, azalak daraman testua edukiaren hizkuntzan egongo da idatzita, oker ulertzeko biderik sor ez dadin.
- **Eleanitza**
Hizkuntza bi baino gehiagotan idatzitako testu osoa duten argitalpenei eleanitzak esaten zaie.
- **Biltzarren, batzarren eta abarren argitalpenak**
Artikuluak bertako hizkuntza ofizial batean idatzita badago, laburpen bat gehituko zaio beste hizkuntzan. Atzerriko hizkuntza batean idatzita badago, bi laburpen gehituko zaizkio, hizkuntza ofizial bietan eginak.

6.1 Ediciones

Las publicaciones que edita el Gobierno Vasco a través de los diversos Departamentos se agrupan en:

- **Libros**
- **Soportes Informáticos y audiovisuales**
- **Revistas**

En este sentido, conviene aclarar que el contenido de este capítulo es de aplicación exclusiva a las publicaciones editadas específicamente por el propio Gobierno Vasco. Las directrices para publicaciones editadas por Entidades dependientes del Gobierno Vasco, así como las derivadas de colaboraciones del Gobierno Vasco en publicaciones de otras Entidades, se detallan en el Capítulo 2 de este Manual, "Convivencia con otras Marcas".

Las Marcas a utilizar en todas las publicaciones serán la "Horizontal" "Centrada" y "Lateral" tanto en sus versiones de color, monocolor o sobre fondos de color.

Por problemas de espacio en los lomos, se contempla la utilización del escudo sin acompañamiento del Logotipo.

El tratamiento idiomático en las publicaciones podrá ser:

- **Bilingüe**
Se entienden por bilingües aquellas publicaciones cuyo texto íntegro esté redactado en dos idiomas.
- **Monolingüe**
En este caso no se deberá incluir el bilingüismo en la portada, con el fin de evitar inducir a error en cuanto a su contenido.
- **Multilingüe**
Se entenderán por multilingües aquellas publicaciones en que el texto íntegro esté redactado en más de dos lenguas.
- **Publicaciones de congresos, asambleas, etc.**
Si el artículo está escrito en una sola de las lenguas oficiales, vendrá acompañado de un resumen en la otra lengua oficial. Si está escrito en una lengua extranjera, vendrá acompañado de sendos resúmenes en las dos lenguas oficiales.

Marka "etzana"
koloreetakoa

Marca "Horizontal"
color



"Erdiko" marka
koloreetakoa

Marca "Centrada"
color



"Albokoa" marka
koloreetakoa

Marca "Lateral"
color



Armarri bakartua
agertzen denean

Escudo para uso
aislado



6.2 Liburuak

6.2.1 Arau orokorrak

Liburuek formatu-aukera ugari eta zabala dute. Eusko Jauriaritzak gehien erabiltzen dituenak hauexek dira:

- 120 x 170 mm
- 150 x 210 mm
- 170 x 240 mm
- 185 x 255 mm
- 200 x 270 mm
- 210 x 295 mm

Definizioak:

Ondoren, kapitulu honetako terminologia zehazten da. Hona hemen termino bakoitzaren esanahia:

- **Estalkia:**

Forru bat da, liburuaren plegu inprimatuak, ordenatuak eta josiak besarkatzen dituena. Kartoizkoa bada tapa esaten zaio, eta larruzkoa edo oihalezkoa bada pasta. Bertan, liburuaren titulua, egilea eta argitaletxearen oina inprima daitezke.

- **Atzeko estalkia:**

Estalkiko laugarren orrialdea.

- **Gaineko estalkia:**

Baditu beste zenbait izen, besteak beste, soingainekoa, alkandora, hauts-babesa, zorroa, jantzia... Paperezko ingurukia da, gehienetan cuche paperaz egina. Obra arruntetan edo luxuzkoetan, estalkiaren gainean jartzen da; paper gogorreko azala duten obretan, berriz, bera da estalkia.

- **Azala:**

Liburuaren orrialde nagusia da. Bertan agertzen dira obraren titulu osoa, azpitulua, egilearen izena eta argitaletxearen oina. Liburuaren hasierako orrialdeetako baten aurrealdean edo orrialde bakoitian kokatzen da beti.

- **Aurreazala:**

Liburu baten lehenengo orrialdea da, baldin eta kortesiazko orrialdeak ez baditu. Azalaren aurrekoa da, eta, bertan, obraren titulua baino ez da inprimatzen.

6.2 Libros

6.2.1 Normas Generales

Los libros están sujetos a una extensa variedad y gama de formatos, siendo los que se utilizan en el Gobierno Vasco de forma más habitual los siguientes:

- 120 x 170 mm
- 150 x 210 mm
- 170 x 240 mm
- 185 x 255 mm
- 200 x 270 mm
- 210 x 295 mm

Definiciones:

A lo largo de este capítulo se utilizará la terminología indicada a continuación con arreglo a los siguientes significados:

- **Cubierta:**

Forro, envoltura que cubre los diferentes pliegos del libro ya impresos, ordenados y cosidos. (También se denomina tapa si es de cartón o pasta si es de piel o tela). En ella se puede imprimir el título del libro, el autor y el pie editorial.

- **Cubierta posterior:**

Cuarta página de cubierta.

- **Sobrecubierta:**

También llamada capa, camisa, guardapolvo, funda y chaleco, es una faja de papel, generalmente couché, que se coloca sobre la cubierta en obras normales o en las de lujo, o que envuelve al libro en obras en rústica.

- **Portada:**

Página más importante del libro; contiene el título completo de la obra, el subtítulo, el nombre del autor y el pie editorial. Siempre ocupa el anverso o página impar de una de las primeras hojas del libro.

- **Portadilla o anteportada:**

Primera página de un libro, en el caso de que no lleve páginas de cortesía, que precede a la portada, y en la que sólo se imprime el título de la obra.

- **Koedizioa:**

Argitaratzaile batzuek kostuak banatu eta merketzeko egiten duten argitaraldia.

- **Koedizioaren burua:**

Koedizioaren jatorrizko ideia ematen duen argitaratzailea, obra sortzeko lanen ardura duena.

- **Lankidetzako obra:**

Bi aldeak edo gehiagok parte hartzen duten obrari esaten zaio horrela. Bakoitzaren parte-hartzea edo lankidetzak-maila azaltzen dira, baina horietako bakoitzaren diru-ekarpenak zehaztu gabe. Horrelakoetan, aldeetako bakoitza baterako egilea edo laguntzailea da.

- **Talde-obra:**

Bi egilek edo gehiagok egiten duten obra. Argi eta garbi bereizten dira egile bakoitzaren lanak, sinadura eta guzti eraman dezaketela.

- **Bilduma:**

Aparteko obren multzoa, zenbakiduna ala zenbakirik gabea. Gai baten inguruan antola badaiteke ere, gehienetan ezaugarri berdintsuen arabera multzokatzen da, eta, normalean, titulu bera izaten du multzo osorako, obra bakoitzean errepikatzen dena, nahiz eta obra bakoitzak bere titulua ere izan.

- **Coedición:**

Edición hecha por varios editores con el fin de abaratar o repartir costes.

- **Cabeza de coedición:**

Editor del que parte la idea original de la coedición y que se responsabiliza de los trabajos de generación de la obra.

- **Obra en colaboración:**


La que se produce originalmente mediante el concurso de dos o más asociados, cuyas participaciones (colaboraciones) se especifican pero sin quedar claramente determinadas las aportaciones de cada uno de ellos. En este caso, cada uno de los asociados tiene la condición de coautor o colaborador.

- **Obra colectiva o en colección:**

La que producen dos o más autores, cuyos trabajos, claramente distinguibles, pueden llevar firma.

- **Colección:**

Conjunto de obras independientes, con numeración o sin ella, cuya relación que puede ser temática, con más frecuencia se limita a igualdad de características y a un título colectivo que se repite en cada una de ellas, además, del suyo propio. La colección puede estar subdividida en series.



Hizkuntzaren trataera:

Argitalpenak honelakoak izan daitezke:

- **Elebidunak:**
 - Elebidunak izango dira, bai estalkian, bai edukian.
 - Argitalpen berean erabili beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak.
 - Itzulikako argitalpenak (liburuaren erdia hizkuntza batean, eta beste erdia bestean; bizkarra alde batera edo bestera jarritz, bi liburu lortzen dira bakar batean)
- **Elebakarrak:**
 - Hizkuntza bakarrean argitaratzen diren liburuak.
 - Hizkuntza bitan argitaratuta ere, aparteko aleetan ateratzen diren liburuak.
- **Eleanitzak**
- **Biltzarren, batzarren eta abarren argitalpenak**

Tratamiento idiomático:

Las ediciones podrán ser:

- **Bilingües:**
 - Lo serán tanto en su cubierta como en el contenido.
 - Con utilización simultánea de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma.
 - Volteadas (la mitad del libro para cada idioma, girando por el lomo para conseguir dos libros en uno).
- **Monolingües:**
 - Libros editados en un solo idioma.
 - Libros editados de forma separada en cada idioma.
- **Multilingües**
- **Ediciones de congresos, asambleas, etc.**

Argitaratzeko moduak
Modalidades de edición

Argitalpen elebidunetan, batera erabili behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak.

Ediciones bilingües con utilización simultánea de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma.




1. aukera / Opción 1
(euskarazkoa hizki handiagoz gaztelaniazkoa baino)
(euskera letra mayor que el castellano)



2. aukera / Opción 2
(euskarazkoa hizki lodiagoz gaztelaniazkoa baino)
(euskera letra más gruesa que el castellano)


Itzulikako argitalpenak

Ediciones volteadas



Argitalpen elebakarrak

Ediciones monolingües



← Izenburua, aukeratutako hizkuntzan
Título en el idioma elegido

6.2.2 Estalkia

Argitalpenaren arduradunak erabakiko du zein diseinu eman estalkiari, beti ere, honako jarraibide hauekin bat:

• Izenburuak:

Estalkian agertzen diren izenburuek eta bestelako aipamenek honako arauak izango dituzte:

- "Argitalpen elebidunetan, batera erabili behar dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak":
Hizkuntza biak ondo bereiztu behar dira, hau da, euskarazkoa hizki lodiagoaz edo handiagoaz gaztelaniazkoa baino.
- "Itzulikako argitalpenak":
Estalki bakoitzak hizkuntza bat izango du. Hizkuntza biek hizki-lodiera eta -tamaina bera izango dute.
- "Argitalpen elebakarrak":
Erabakiko den irizpidearen arabera.
- "Argitalpen eleanitzak":
Honako kasu hauek izan daitezke:
 - *Euskara, gaztelania eta beste batzuk.*
Izenburua euskaraz eta gaztelaniaz.
 - *Euskara eta beste batzuk.*
Izenburua euskaraz.
 - *Gaztelania eta beste batzuk.*
Izenburua gaztelaniaz.
- Beste aipamen batzuk:
Izenburuen irizpide berari jarraituko diote.
- Egilea:
Behin baino ez da agertuko argitalpen elebidunetan.

Egile bat baino gehiago direnean, azalean edo lizentzien orrialdeetan agertuko dira.

• Marka:

- Marka derrigorrez erabili behar da, eta, ahal dela, estalkian (batez ere lan teknikoetan); dena dela, atzeko estalkia ere erabili ahal izango da horretarako. Marka "etzana", "erdikoa" edo "albokoa", bata zein bestea, txertatu ahal izango dira, kolore bakarrean, koloreetan edo koloreetako hondoen gainean.
- Aukeran, hierarkiako maila bakarra sartu ahal izango da; horrelakoetan, sailarena izango da beti. Hierarkiako beste maila batzuk jartzen badira (hiru gehienez ere), azalean eta/edo fitxa teknikoan txertatu behar dira.
- Eusko Jaurlaritzak beste erakunde batekin batera egiten dituen argitalpenen estalkian, bien markak azalduko dira. Guztira bi baino gehiago direnean, berriz, denak agertuko dira –Eusko Jaurlaritzarena barne–, baina atzeko estalkian.

6.2.2 Cubierta

El diseño de la cubierta quedará a criterio del responsable de la edición, con arreglo a las siguientes pautas:

• Titulares:

Los títulos y otras menciones escritas en ella deberán regirse por las siguientes normas:

- "Ediciones bilingües con utilización simultánea de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma":
Están sujetas a la diferenciación de los dos idiomas, es decir, euskera en letra más gruesa o más grande que el castellano.
- "Ediciones volteadas":
Cada cubierta irá en un idioma, los dos idiomas se compondrán en el mismo grosor y en el mismo tamaño de letra.
- "Ediciones monolingües":
Según criterio.
- "Ediciones multilingües":
Se pueden dar los siguientes casos :
 - *Euskera, castellano y otros*
Título en euskera y castellano.
 - *Euskera y otros*
Título en euskera
 - *Castellano y otros*
Título en castellano
- Otras menciones:
Seguirán el mismo criterio que los títulos.
- Autor:
Figurará una sola vez en las ediciones bilingües.


En los casos de varios autores o en el de coautores, figurarán en la portada o en la página de licencias.

• Marca:

- El uso de la Marca será obligatorio, con carácter preferente en la cubierta (especialmente en los casos de trabajos de índole técnica); no obstante, también se podrá utilizar la cubierta posterior para este fin. Se usará indistintamente la Marca en sus configuraciones "Horizontal", "Centrada" o "Lateral", tanto en sus versiones de color como monocolor.
- Opcionalmente se podrá incluir un único nivel jerárquico, en cuyo caso deberá ser siempre el correspondiente al Departamento. La inclusión de otros niveles jerárquicos (hasta un máximo total de tres) quedará circunscrita exclusivamente a la portada y/o a la ficha técnica.
- En los casos de coediciones del Gobierno Vasco con otras Entidades, cuando los coeditores sean sólo dos, las marcas de ambos figurarán en la cubierta; cuando sean más de dos, figurarán todas –incluida la del Gobierno Vasco– en la cubierta posterior.


- Eusko Jaurlaritzaren marka behar bezala agertzeko eta baimenik gabeko sasimarkek nahasmenik sor ez dezaten, hauxe izango da jarraibidea: argitalpenen diseinuan (estalkiak, bizkarrak, azalak, gaineko estalkiak...) ezin izango dira behin eta berriro txertatu aurretiaz erabilitako ikur bakartuak edo markak, baldin eta bildumen ezaugarriak ez badira edo Jaurlaritzak onartu ez dituenak badira.

- Con el fin de evitar la utilización indiscriminada, confusa o ambigua de pseudo marcas no autorizadas que resultan en una merma de la presencia de la Marca del Gobierno Vasco, no se admitirán en los diseños de las publicaciones (cubiertas, lomo, portadas, sobrecubiertas, etc.) el uso reiterativo de símbolos aislados o marcas que hayan sido previamente utilizadas y que no sean las identificativas de colecciones editoriales o marcas ya reconocidas por el Gobierno.



Marka modu egokian erabiltzeko, jo bedi 1. kapituluko 1.3.1etik 1.3.5era bitarteko epigrafeetara.

Para la correcta aplicación de la Marca, consultar epígrafes 1.3.1 a 1.3.5 del capítulo 1 "Normas Universales".



Markek edozein liburu-formatutan izan ditzaketen gehieneko eta gutxieneko neurriak.

Marka estalkiaren goialdean nahiz behealdean koka daiteke, baina beti, goiko nahiz beheko muturretik marka hasten den tokira beste marka baten tartea utziz.

Tamaños máximos y mínimos de las versiones de las marcas independientemente del formato del libro.

Su ubicación dentro de la cubierta será en la cabecera o en la base dejando una separación con el corte de cabecera o pie igual a la altura de la Marca.

6.2.3 Atzeko estalkia

Argitalpenaren arduradunaren iritzipean geratzen da atzeko estalkiaren diseinua.

Jaurlaritzak beste erakunde batzuekin batera argitalpenak egiten dituzenean eta argitaratzaileak bi baino gehiago direnean, denen markak –Eusko Jaurlaritzarena barne– agertuko dira atzeko estalkian. Horrek guztiak bat egin behar du 2. kapituluko ("Beste marka batzuekin batera") "Eusko Jaurlaritza laguntzaile denean" ataleko 2-27/99 orrialdetik aurrerakoetan ezarritako irizpideekin.

Itzulikako argitalpenetan, azalean jarriko dira markok (ikus 6-13/99 orrialdea).

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak kaleratutako argitalpenek zerbitzuaren izena eraman beharko dute atzeko estalkiaren behealdean. Baldin eta beste erakunderekin batera argitaratzen bada, eta banatzeko beste bide batzuk ere erabiltzen badira, beste bide horiek ere adierazi ahal izango dira Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiarekin batera.

Barra-koderik bada, gune zuri bat gordeko da hura jartzeko.

Horren azpian, argitalpenaren jendearentzako prezioa jasoko da.

6.2.4 Gaineko estalkia

Gaineko estalkia erabiltzen denean, honako arau hauek ezarri beharko dira:

- Estalkia egiteko irizpide berberak erabiliko dira gaineko estalkia egiteko ere, hain zuzen ere 6.2.2 puntuan adierazi bezala.

- Eta:

- Liburua azalezkatzeko estalkia guaflexkoa, oihalezkoa edo antzekoa bada, bizkarrean, estalkiaren lehenengo orrialdean eta laugarrenean oinarritzko datuak baino ez dira txertatuko (izenburua, egilea eta Eusko Jaurlaritzaren marka).
- Liburua azalezkatzeko estalkia kartulinazkoa bada, gaineko estalkiaren diseinu bera erabili ahal izango da estalkian ere.

6.2.3 Cubierta posterior

El diseño de la cubierta posterior quedará a criterio del responsable de la edición.

En los casos de coediciones del Gobierno Vasco con otras Entidades, cuando los coeditores sean más de dos, las marcas de todos ellos figurarán –incluida la del Gobierno Vasco– en la cubierta posterior. Todo ello conforme a los criterios establecidos en las páginas 2-27 / 99 en adelante del apartado "Colaboraciones del Gobierno Vasco" del Capítulo 2 "Convivencia con otras Marcas".

En el uso de ediciones volteadas, estas marcas, se colocarán en la portada (ver página 6-13 / 99).

Las publicaciones editadas por el Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco estarán identificadas por su firma en la base de la cubierta posterior. Si se trata de una coedición que también incluye su distribución por otros canales complementarios, también podrán indicarse junto a la firma del Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

En caso de llevar código de barras se reservará un espacio en blanco para su ubicación.

Al pie del mismo figurará impreso el precio de venta al público de la publicación.

6.2.4 Sobrecubierta


En los casos de utilización de sobrecubierta, serán de aplicación las siguientes normas:

- Los criterios para la realización serán los mismos que los definidos para la cubierta en el punto 6.2.2.

- Por otro lado:


- Si la encuadernación del libro es con cubierta de guaflex, tela o similares, en el lomo, 1ª y 4ª página de la misma sólo se incluirán los datos elementales (título, autor y Marca del Gobierno Vasco).
- Si la encuadernación del libro es en cartulina, se podrá utilizar en la cubierta el mismo diseño de la sobrecubierta.

Eusko Jaurlaritzak egindako argitalpena
Publicación editada por el Gobierno Vasco



Eusko Jaurlaritzak beste erakunde batzuekin batera egindako argitalpena. Osotasuna banatzeko modua diseinuaren irizpidearen araberakoa izango da.

Publicación editada por el Gobierno Vasco en colaboración con otras entidades.
La distribución del conjunto será según criterios de diseño.



6.2.5 Bizkarrak

• Izenburuak

Izenburuak zentratu egongo dira, ezker eta eskuin tarte berdina dutela. Argitalpen-multzoak eta bildumak direnean, izenburuak beti toki berean hasiko dira. Irakurketa beti zentzu berean egiteko, testuak gora begira egongo dira, eta bestalde, ezkerretik lerrokatuko irakurketaren zentzuan. Hala ere, 40 mm baino gehiagoko bizkarrak direnean, izenburuak etzanka jarri ahal izango dira.

Oinarriko armariak, beste markak edota bildumaren zenbakia, baldin baditu, zutikako eran jarriko dira ondoko marrazkian agertzen den bezala.

Izenburuak –hizkuntza batean zein bestean– idazteko lau aukera daude:

- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak batera erabiliz egiten diren liburu elebidunetan, izenburua elebiduna izango da.
- Itzulikako argitalpenen liburuetan, izenburuak elebidunak izango dira, eta euskaraz dagoen azala nagusizat hartuko da.
- Liburu elebakarretan, argitalpenaren hizkuntza bera erabiliko da izenburuan ere.
- Liburu eleanizetan, izenburua euskaraz eta gaztelaniaz jarriko da.

• Armarrria

Zazpi (7) milimetrotik gorako bizkarretan, beti jarriko da armarrria, bai koloreetan (gutxienez 8 mm-ko garaiera), bai kolore bakarrean.

Armarrriaren behealdetik orriaren oinarriaino 10 mm egongo dira.

Bizkarraren lodieraren araberako tamaina izango du armarrria, edo bilduma bereko beste liburuekiko homogeneizazioaren araberakoa.

• Beste osagai batzuk

Bildumaren marka edo izena, bildumaren barruko hurrenkera-zenbakia eta bestelako ikurrak.

Osagai horien alde goienetik orriaren goiertzerainoko tarteak 10 mm-koa izango da gehienez.

Osagai horiek agertzeko hurrenkera honako hau izango da: bildumaren marka edo izena, bildumaren barruko hurrenkera-zenbakia eta bestelako ikurrak.

6.2.5 Lomos

• Titulares

Irán siempre centrados con respecto al ancho. Cuando se trate de series y colecciones, se cuidará que estos textos empiecen todos a la misma altura. Con el fin de que su lectura se realice siempre en el mismo sentido, la orientación de los textos será siempre de abajo hacia arriba y manteniendo justificación izquierda en el sentido de la lectura. No obstante, en los casos de lomos más gruesos de 40 mm. se podrán disponer en sentido horizontal.

El escudo de la base, otras posibles marcas y/o el número de la colección, si lo tiene, se colocarán en el sentido vertical del lomo según el dibujo adjunto.

A la hora de escribir los títulos en uno u otro idioma existen cuatro posibilidades:

- En libros con "Ediciones bilingües con utilización simultánea de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma": El título irá en bilingüe.
- En libros de "ediciones volteadas": Los titulares irán en bilingüe tomando como referencia de portada principal la de euskera.
- En libros "monolingües": El título irá en el idioma de la edición.
- En libros "multilingües": El título irá en euskera y castellano

• Escudo

Se colocará siempre en lomos de más de 7 mm. de grosor, en color (tamaño mínimo 8 mm. de alto) o monocolor.

Su parte inferior distará 10 mm. de la base.

El tamaño dependerá del grosor del lomo o de la homogeneización con otros libros que pueda haber de la misma colección.

• Otros elementos

Marca o nombre de la colección, número del orden dentro de la colección, y otros símbolos.

La separación a la que se debe colocar la parte más alta de estos elementos será de 10 mm. del borde superior.

El orden de aparición de estos elementos será: Marca o nombre de la colección, número del orden dentro de la colección y otros símbolos.



Euskaraz, hizkiek lodiagoak beharko dute izan gaztelaniaz baino.
En euskera la letra debe ser más gruesa que en castellano

6.2.6 Azala

Orrialde horretan agertu behar duten osagaiak hauexek dira:

- Izenburua.
- Azpi-izenburua (baldin bada).
- Egilea (behin baino ez).
- Marka sailarekin batera edo marka sailarekin eta laguntzen duten erakundeen markekin.
- Eusko Jauriaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren izena, bera argitaratzailea bada.
- Argitaratzailearen herria.
- Argitaratu den urtea.

Osagaiok goitiki beherantz agertuko dira, zerrendatu diren hurrenkera berean.

Eusko Jauriaritzaren markari hierarkiako hiru maila gehitu ahal izango zaizkio. Horrelakoetan, lehenengo maila sailarena izango da beti; gainerako biek dagokion administrazio-atala eta goragoko atal hurbilena (edo zeini dagoen atxikita) ezagutaraziko dituzte.

Hizkuntza erabiltzeko irizpidea, bestalde, estalkirako erabakitako bera izango da. Salbuespen bakarra, hala ere, argitalpen eleanitzak izango dira, beren azalean dagozkien hizkuntza guztietan jasoko baitute izenburua.

Hona hurrenkera:

- Euskara
- Gaztelania
- Estatuko beste hizkuntzak
- Gainerakoak

6.2.6 Portada

Los elementos que deben figurar en ésta página son:

- Título.
- Subtítulo –si lo hubiera–.
- Autor –una única mención–.
- Marca con el Departamento, o Marca con el Departamento junto con las marcas de las entidades que colaboran.
- Firma del Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, si éste es el editor.
- Ciudad del editor.
- Año de publicación.

Aparecerán de arriba a abajo según el orden en que se han detallado.

La Marca del Gobierno Vasco podrá incluir un máximo de tres niveles jerárquicos, siendo siempre el primero el correspondiente al Departamento. Los dos restantes identificarán a la unidad administrativa correspondiente y a su inmediata superior o de adscripción.

El criterio a seguir en cuanto al uso idiomático, será idéntico al adoptado para la cubierta, excepto en las ediciones multilingües donde la portada recogerá el título en cada uno de los idiomas por este orden:

- Euskera
- Castellano
- Otras lenguas propias del Estado
- Resto

Hizkuntza biak kokatzeko adibideak:

Ejemplo de aplicación de los dos idiomas:

1. aukera

(euskaraz gaztelaniaz baino hizki handiagoaz)

Opción 1


(euskeraz letra mayor que el castellano)

**IZENBURUA
EUSKARAZ**

**TITULO EN
CASTELLANO**

Azpi-izenburua
euskaraz
Subtítulo en castellano

Egilearen izena
Nombre del Autor

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**
SALA EUSKARAZ DEPARTAMENTO EN CASTELLANO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Heria eta urtea
Ciudad y año

2. aukera

(euskaraz gaztelaniaz baino hizki handiagoaz)

Opción 2


(euskeraz letra mayor que el castellano)

**IZENBURUA
EUSKARAZ**

**TITULO EN
CASTELLANO**

Azpi-izenburua euskaraz
Subtítulo en castellano

Egilearen izena
Nombre del Autor

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**
SALA EUSKARAZ DEPARTAMENTO EN CASTELLANO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Heria eta urtea
Ciudad y año

Egilearen izena
Nombre del Autor

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**
SALA EUSKARAZ DEPARTAMENTO EN CASTELLANO

  
Euzko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Heria eta urtea
Ciudad y año

Eusko Jaurlaritzak
beste erakunde
batzuekin batera
egindako argitalpenen
adibidea.

Ejemplo de publicación
editada por el Gobierno
Vasco con la
colaboración de otras
entidades.

6.2.7 Lizentzien orrialdea

